



# Sorne Untzuetak (Utarsus)

*Zenon Uriguen, Pasiotarra*

## **SORNE, SORRERA, SORKUNDE.**

Berba aberatsak dituzu biziaren itxaopenez jantziak. Ez dago etorkizunik sorkunde barik. Baña bizi asieran ez gara egiñak. Egiñez-eginez goaz bizitzagaz batera. Egunetik egunera, egite onakaz jantziz jantziz landarea zugatz aundi ta zabal bat egiten dan lez. Gure bizitzako elburu nagusia goi-goraño egite onez loratzea da. Auxe da Sorne Untzuetak emoten dauskun ikasbidea.

## **Jaiotza ta gaztaroa:**

Jakingarria da neska gazte onen jaiotza. Bilbon, Abandon, 1900 urtean. Sei-zazpi urtekin jakin-min bizia dauko. Bere ikasteetan asmorik goragarrienak ditu. Abandon bizi da Sabino Arana. Sabinoren gogo eta ekintza beti izan zan eraginkorra: Euskadi ta euskera. Euskadi barri bat egin eta eragin, eta euskera jatorra lau aizetara zabaldu. Sornek Sabinoren ikasle zintzoa izatea nai dau. Esan ta egin. 16 urtegaz, irakasle izateko ikasteak amaiturik Andereño izango da. Nun? Foru aldundiak jarritako Ikastoletan: Errigoiti, Plentzia, Lemoa eta Berangon. Bai, bere ekintza zintzoa umeei euskera erakustea da. Euskera gaietan goren izateko Kirikiño maixuaz irakasle jatorra izateko ikasteak egin ditu. Sornerentzat Kirikiñoren euskera errikoia, argia ta garbia ikasbide oberena da.



## Idazlari Joria.

Sorne Untzuetan euskal idazle eta olerkaria da prosaz eta bertsoz. Lauaxeta olerkari gurenak sarri goratu eban euskal emakumea. Eder ikusten zituan euskal alabak euskeraz idazten. Sornek etorkizun eragiña biztutzeko eta emakumeak euskera zaletasunean bizkortzeko idazten dau “Itxartu Eusko Alaba” gerra aurretik egindako poemak amabi(12)dira. Jaungoikoa eta aberria gorengo maillan jartzen ditu. Gerratean anka egin eban Frantziara, 1937-1953. Emendik idazten dau Euzko Gogoan,

Euzko Deian. Baita poema bat Artxanda izenagaz Euskera eta Aberria goratuz. Gizona egiñetatik ezagutzen da. Sorne bere idazlan-bertsoetan dogu ezaguna. “Nork biztu dau gure maitasuna euskera geuregeurea dana, euskaldun odol bizi-biziak izan ezik, geure-geureak diran gauzak goratu ta aldeztutzeko”? (Sorne). Sorne idazlariak aipamen eta omen gorena merezi dau, Euskadi osoan, euskera zaletasuna ta bere euskal ekintza guztiak txalotuz.

*“Izan zirelako gara,  
garalako izango dira”*

